

**JUSTIZIA MINISTERIOAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, GERRA ZIBILEAN ETA DIKTADURAN JAZARPENA EDO INDARKERIA JASAN ZUTENEN ESKUBIDEAK AINTZATETSI ETA ZABALTZEN DITUEN ETA HAIEN ALDEKO NEURRIAK EZARTZEN DITUEN ABENDUAREN 26KO 52/2007 LEGEKO 12.2 ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO HOBIEN MAPA INTEGRATUA EGIN ETA APLIKATZEKO.**

Madriren, 2010eko urtarrilaren 25ean

### **BILDUTAKOAK**

Alde batetik, **Francisco Caamaño Domínguez jauna**, Justiziako ministroa. Otsailaren 23ko 240/2009 Errege Dekretuaren bidez izendatu zuten ministro, eta Justizia Ministerioaren ordezkari lanetan dihardu, indarrean dagoen legediak ematen dizkion eskumenak erabiliz.

Beste aldetik, **Idoia Mendia Cueva andrea**, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua. Lehendakariaren maiatzaren 8ko 8/2009 Dekretuaren bidez izendatu zuten sailburu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzaren izenean dihardu.

Alde bakoitzak besteari lankidetzaz hitzarmen hau izenpetzeko ahalmena aitortu eta hauxe

### **ADIERAZI DUTE**

**Lehenengoa.-** Diputatuen Kongresuko Konstituzio Batzordeak 2002ko azaroaren 20an aho batez onartu zuen legegokoa ez den proposamen bat, hauxe esaten zuena: Iraganen gertatu zen arren, inork ere ezin du indarkeria erabili, horretarako zilegitasuna duelakoan, norberaren uste politikoak inori inposatzeko eta erregimen totalitarioak ezartzeko. Erregimen totalitarioak, herritar guztion askatasunaren eta duintasunaren aurkakoak izanda, gaitzetsi eta ukatu egin behar ditu gure gizarte demokratikoak.

**Bigarrena.-** Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aintzatesi eta zabaltzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legearen helburua da espainiarren zauriak ixtea eta zuzenean edo familiako kideren baten bitartez Gerra Zibilaren zorigaitza edo diktaduraren errepresioa pairatu zituzten herritarrak asebetetzea.

Lege horren asmoa egindako kaltea biktimei ordaintzea da; norbera eta familia oroimenean izateko eskubidea ahalik eta lege-indar handienarekin eta erabateko herritartasun demokratikoaren adierazpen gisa babestu eta aintzatestea; konstituzio-balioak sustatzea eta gure iragana ezagutu eta iragan

horri buruzko gogoeta bultzatzea, garai hartako intolerantziatzko eta giza eskubideen urraketako egoerak errepikatu ez daitezen.

**Hirugarrena.-** Gatazkak eragindako indarkeria-garaian hil edo desagertutako ahaideak ditu herritar askok; zenbaitek ez daki ahaide horiek non dauden, eta batzuk hobi komunitan azaldu dira eta identifikatu gabe daude. Egoera horren aurrean, herritar horiek, zilegitasun osoz, ahaideen gorpuzkiak aurkitu eta ohoratu ahal izatea eskatzen dute.

Hurbilekoren bat galdu duten pertsonen egiten duten arrazoizko eskaerari erantzun ahal izateko, legearen 12. artikuluko 2. paragrafoak zera ezarri zuen: administrazio publikoek, bakoitzak bere lurralde-esparruan, legeko aurreko artikuluan aipatutako pertsonen gorpuzkinak dauden lurren mapak egin eta interesdun guztien eskura jarriko dituztela eta mapa horietan bilduko dela lur horiei buruz eskuragarri dagoen informazio osagarri guztia.

**Laugarrena.-** Autonomia-erkidegoek eta toki-erakunde ugari hainbat ekintza egin dituzte gai honen inguruko memoria historikoa zaintzeko, aipatutako aldiak desagertu zirenak aurkitu, lurpetik atera eta ondoren identifikatzeko, alegia. Gainera, badira jarduera horiek arautzeko arau eta protokoloak eta dokumentazio mordoa dauzkaten erakunde-egitura oso garatuak ere.

**Bosgarrena.-** 52/2007 Legearen helburuak bete daitezzen eta administrazio publikoek egindako ahaleginak eraginkorrak izan eta emaitza berdintsuak lortzeko, lankidetzaren hitzarmen honek administrazio-jardueren parametro bateratuak ezarri nahi ditu.

Horri guztiari erantzuten dio estatu osoko hobien mapa integratuak. Estatuaren zeregina, kasu honetan, administrazio publikoek daukaten oinarritzko informazioa era homogeenan bildu eta interesdunen eskura jartzea da, informazioaren jatorria eta zein administrazioek eman duen ere agerian utziz.

Hortaz, bilaketak eta lurpetik ateratzeko lanak egiten dituzten administrazioek jaso beharko luketen oinarritzko informazioa zehaztu beharra dago, guztiek modu berdinean lan egin dezaten. Hurrengo pausua, Justizia Ministerioari informazioa helarazteko bide ongi antolatu eta estandarizatuak ezartzea da, estatu-mailako mapa elikatu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, aldeek lankidetzaren hitzarmen hau sinatu dute eta ondorengo klausulak ADOSTU dituzte.

## **KLAUSULAK**

### **LEHENENGOA.- Hitzarmenaren helburua eta aplikazio-eremua**

Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aintzatetsi eta zabaltzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legeak desagertuak identifikatu eta aurkitzeko aurreikusten dituen neurriak aplikatzeko, alderdien artean lankidetzatza instituzionala ezartzea da hitzarmen honen helburua.

Bere aplikazio-eremua, hortaz, Justizia Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren artean lankidetzatza ezartzea da, 52/2007 Legeko 12.2 artikuluan aurreikusten den hobien mapa integratua egin eta martxan jartzeko.

### **BIGARRENA.- Justizia Ministerioak egin beharreko jarduerak**

Justizia Ministerioak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Hobien mapa integratua egiteko betekizunak adierazten dituen dokumentua Autonomia Erkidegoaren eskura jartzea (hitzarmen honi erantsita dago).
2. Eman beharreko lankidetzatza eta laguntza ematea hobien mapa integratuari buruzko dokumentuan adierazitako aurreikuspenak Autonomia Erkidegoak eraginkortasun handiagoarekin aplikatu ahal izateko.
3. Autonomia Erkidegoak helarazitako informazioarekin hobien mapa integratuko datuak eguneratzea.
4. Helarazitako informazioa gordetzeko eta eskuragarri jartzeko informatika- eta telekomunikazio-azpiegitura bat edukitzea.
5. Hobien estatuko maparen web ataria egin ondoren, informazioaren jatorria ikusteko moduan edukitzea.

### **HIRUGARRENA.- Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak egin beharreko jarduerak**

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Hobien mapa integratua egiteko, eranskinean eskatzen den informazioa ematea. Gerra Zibilean eta gerra osteko errepresio politikoaren garaian desagertutakoen gorpuzkiak dauden lurretan Autonomia Erkidegoak —toki-erakunde bidez—, memoria historikoa zaintzeko eraturako elkarteek eta Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuko interesdunek egindako jardueri buruzkoa izan behar du informazio horrek.

2. Lankidetza-hitzarmen honetako eranskinean deskribatutako hobien mapa integratuari buruzko informazioa eta mapan egin beharreko aldaketak Justizia Ministeriori helaraztea.

3. Autonomia Erkidegoak ehorzketa-lekuei buruzko daturik bilduta baldin badu dagoeneko, eta datu horiek ez badaude eranskinean proposatutako formatu berdinean, informazio hori dagoen dagoenean bidaliko du.

### **LAUGARRENA.- Finantziazioa**

Hitzarmen honetako klausulak betetzeak eskatzen dituen finantza-konpromisoak alde bakoitzak hartuko ditu beregain, bakoitzak bere aurrekontu-kredituekin.

### **BOSGARRENA.- Bitariko Jarraipen Batzordea ezartzea**

Hitzarmenaren garapenaren jarraipena egiteko, bitariko batzorde paritario bat eratuko da hitzarmena sinatzen duten alde guztietako ordezkariekin.

Bitariko Batzordeak zeregin hauek izango ditu:

- a) Justizia Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren arteko zubi-lana egiteaz arduratuko den organo iraunkorra izatea.
- b) Hitzarmen honen helburua den lankidetza hobetzeko proposamenak eta ekimenak bidaltzea bi aldeetako organo eskudunei.
- c) Lankidetza-hitzarmen honen irismen eta edukiaren inguruan sortzen diren zalantza eta gatazken konponketak proposatzea Estatuko Administrazioko eta Eusko Jaurlaritzako organo eskudunei.
- d) Hitzarmenean jarduera berriak sartzeko, edo hitzarmeneko jarduerak aldatu edo kentzeko proposamenak aztertu eta onestea, hitzarmena sinatzen duten organoei helarazi eta haiek hartu beharreko erabakiak hartzeko.
- e) Hitzarmen hau garatzeko egiten diren jardueren jarraipena egitea.
- f) Hitzarmena interpretatu, bete eta bukatzearen inguruan sortzen diren zalantzak adostasunez konpontzea, baita hitzarmenaren ondorioen inguruko zalantzak ere.

### **SEIGARRENA.- Indarrean jartzea eta iraupena**

Lankidetza-hitzarmen hau sinatzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2010eko abenduaren 31 arte iraungo du. Isilbidez luzatu daiteke, urtero, hitzarmena suntsitzeko arrazoi hauetakoren bat tartean ez badago:

- Hitzarmena sinatu duen aldeetako batek hitzarmenaren bukaera berariaz eta idatziz iragartzea berez bukatzea dagokion data baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

- Bi aldeen arteko adostasuna.

- Alderen batek hitzarmen honetan ezarritako klausularen bat ez betetzea.

**ZAZPIGARRENA.- Jurisdikzio eskuduna**

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak du hitzarmen hau aplikatzerakoan sortzen diren auziak epaitzeko eskumena.

Azaldutakoarekin guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek hitzarmen hau sinatu dute goian adierazitako tokian eta egunean.

JUSTIZIAKO MINISTROA

JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRAZIOKO SAILBURUA

Francisco Caamaño Domínguez jn.

IDOIA MENDIA CUEVA and.

# ERANSKINA

## HOBIEIEN MAPA INTEGRATUA

---

### I.- AURREKARIAK

Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aintzatetsi eta zabaltzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legeko 12.2 artikulua gobernuaren esku uzten du Espainiako lurralde osoa hartzen duen, interesa duten herritar guztien eskura dagoen eta administrazio publiko eskudunek bidali beharreko datuak sartzen dituen mapa integratua egiteko prozedura ezartzeko eta mapa hori egiteko ardura.

### II. XEDEA

Gerra Zibilean eta frankismo garaian desagertutakoen ahaideek zilegitasun osoz eskatzen dutenari erantzutea.

Estatuan dauden hobiak identifikatzea eta hobi horien inbentarioa egitea.

### III. HELBURUAK

Lurralde-administrazio eskudunek gorpuak lurpetik atera, analizatu eta beste zenbait ikerketa egiteko jardueri esker eskuratutako informazioaren datu-base bat sortzea. Datu-base horretako informazioa bata besteari lotutako eremu esanguratsuetan antolatuta egongo da.

Lurralde-administrazio publikoetatik datorren informazioa sartzeko behar diren aplikazio informatikoak sortzea.

Interesdunek kontsultak egin ahal izateko web orri bat diseinatu eta sortzea.

### IV. HOBIEIEN MAPA INTEGRATUAREN EDUKIA

Lurralde-administrazio eskudunek —batez ere autonomia-erkidegoek— hobiei buruz biltzen duten informazioa ere jasotzen duen datu-base bat sortzea da helburua.

Aipatutako datu-basean sartu beharreko informazioaren bidez eredu homogeen bat ezarri nahi da. Horrela, errazago transferitu ahal izango dira lurralde-administrazioen datuak, besteak beste gertutasuna dela-eta toki-administrazioek erabiltzeko moduan dauzkaten datu-baseak.

Horretarako, hobien estatuko mapak oinarritzko informazio hau bilduko du:

## Hobiaren datuak

### Kokapena

- o Geografikoa (udalerrria, probintzia eta autonomia-erkidegoa)

- Kartografikoa
- Lur-jabetza publikoa / pribatua
- Dokumentazio grafikoa eta argazki-dokumentazioa bai / ez

### Hobi-mota

- Hobia existitzeko arrazoia (atzeguardiako errepresalia, borroka armatua, bestelako gerra-ekintza)

### Aurkitutako gorpuzkiak direla-eta egindako esku-hartzeak

ESKU-HARTZERIK EGIN GABEKO HOBIA

PROSPEKZIOAK EGINDAKO HOBIA bitarteko teknikoak / bitarteko mekanikoak

ESKU-HARTZEA EGINDAKO HOBIA

- Indusketa (data)
- Gorpuak lurpetik ateratzea (data)
- Gorpuak lurpetik atera ondorengo jarduerak (lekuz mugitzea, berriz lurperatzea, seinaleak jartzea, etab.)

## **Hobian aurkitutako pertsona desagertuen datuak**

- Desagertzearen inguruabarrak
- Desagertzearen inguruabarren ezagupen-maila

### Hilotz-kopurua eta ziurtasun-maila

### Identifikatu gabeko gorpuzkiak (pertsona-kopurua)

### Identifikatutako gorpuzkien datuak:

- Izen-abizenak
- Sexua
- Jaioteguna eta jaiotekua
- Lanbidea
- Bizilekua

## **Hobiari buruzko informazioa ematen duen erakundea**

Autonomia-erkidegoa

Udala

## Elkartea

### Informazio-iturriei buruzko erreferentziak

- Agiritegiak, erregistroak (etab.)
- Ahozko testigantzak
- Bibliografia
- Erakunde publiko, elkarte, partikular, historialari eta bestelakoek egindako ikerketak

### Jatorrizko espedientearen kokalekua

- Lurpetik ateratzeari eta ikerketari buruzko espedientea dagoen administrazio, organo edo erakundearen erreferentzia.
- Informazioa dagoen web orrietarako esteka edo, halakorik izan ezean, posta arruntaren helbidea.